

Memoriari buruzko herritarren elkarrizketak

Memoria Plaza ekimenaren harira
eginiko parte hartzeko eztabaida-
tailerrei buruzko ondorioak



Gizartearen parte-hartzea

Memoriaren Plaza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizkidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

AURKIBIDEA

Aurkezpena	5
Metodologia	6
Zeharkako lau ondorio nagusi	7
1. esparrua: Gerra Zibila	8
2. esparrua: Diktadura	9
3. esparrua: Kontraterrorismoa	9
4. esparrua: ETA	11
Eranskinak	14

Aurkezpena

2014ko azaroaren 27an, Eusko Legebiltzarrak Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko Legea onartu zuen. Gertakizun hori erreferentzia-puntu zehatza da, eta horrexekin loturik dago herritarren partaidetzako proiektu hau.

Eusko Jaurlaritzak, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren bidez eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzarekin elkarlan estuan, Memoriaren Plaza izeneko herritarren partaidetza-programa bultzatu zuen, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua abian jartzearekin batera. Ekimenaren helburua, alde batetik, testigantzak eta emozioak jasotzea izan da, eta, bestetik, hiru hiriburuetan askotariko pertsonen taldeen artean memoriari buruzko elkarrizketa ezartzea. Horretarako, hainbat tailer egin dira parte-hartze zuzena bultzatzeko.

Prozesu honen barruan, 9 eztabaida-talde izan dira, 3 talde lurralde historiko bakoitzean, metodologia parte-hartzaileetan aditua den Gaia aholkularitza-taldeak dinamizatuta. Hiriburu bakoitzean eginiko tailerretan, aztertzeko 4 esparru landu dituzte, guztiak ere elkarrizketan oinarrituta: Gerra Zibila, Diktadura, Kontraterrorismoa eta ETA jorratu dira Gogoran, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuan, azaroaren 27ko 4/2014 Legeak jasota bezala.

Metodologia

Herritarren partaidetza bultzatzeko proiektu honetan ezarritako helburuak lortzeko, hurbilketa kualitatiboaren metodologia aukeratu da. Metodologia horren bidez, parte-hartzaileek (gizabanakoak edo pertsona-talde txikiak, eurekin lan egiteko) inguruan dituzten fenomenoei buruz zer ikuspuntu duten ulertu eta euren esperientzia, ikusmolde, iritzi eta esanahien inguruan sakondu daiteke; hau da, pertsonen subjektiboki euren errealtatea zer-nola ikusten duten. (Hernández, Fernández eta Baptista; 2010)

Hurbilketa kualitatibo batean, ikusmolde guztiek balio dute. Ez dugu egia edo moralitatea bilatu nahi, beste pertsona batzuen ikusmolde zehatza ulertu besterik ez. Berdin tratatuko ditugu pertsona guztiak.

Pertsonak kualitatiboki aztertzean, euren alderdi pertsonala ezagutuko dugu, bai eta gizartean edo erakundeetan egunero dituzten borroketan zer sentitzen duten esperimendu ere. Zenbait kontzeptu sakonduko ditugu; besteak beste, edertasunari, minari, fedeari, oinazeari, etsipenari eta maitasunari buruz, horien esentzia galdu egiten baita beste ikerketa-ikuspuntu batzuetan. (Taylor eta Bogdan; 1987)

Tailerretan informazioa biltzeko, premisa baten inguruan aritu gara: konfiantzazko, errespetuzko eta entzuteko giroa sortzea. Giro horrek ahalbidetu du sentimenduak eta esperientziak bateratzea. Tailerrak banan-banan (hausnarketa sakonagoa egiteko) eta taldeka (elkarrizketa/trukeari bide emateko) landu ditugu. Metodologiaren aldetik oso interesgarriak izan dira biak informazioa lortzeko. Dinamika berri-tzaileak dira, eta marrazkiak, kolorea eta idazketa erabili dira helburua lortzeko. (Ikus eranskinak)

Esparrua	EAE
Unibertsoa	EAEen bizi diren biztanleak, bi sexuetakoa eta 18 urtetik gorakoak
Lagina	72 lagun
Azterlanaren datak	2015eko maiatzetik abuztura
Tailerren iraupena	Ordu eta erdi
Tokiak	Bilbo, Donostia eta Gasteiz
Parte-hartzaileen ezaugarriak	%52 emakumeak eta %48 gizonak 18 eta 75 urte bitartekoak
Hizkuntza	Gaztelaniaz eta euskaraz egin ziren

Zeharkako lau ondorio nagusi

1. Memoria pertsonala norberarena eta ezberdina da bakoitzarentzat	2. Lau esparruak egituratzen dituzten diskurtso eta sentimendu kolektiboak daude
3. Lau esparruak elkarri lotuta daude, elkarri erreferentzia egiten diote eta memoria pertsonalean sartzen dira	4. Lau esparru horiei loturiko zauri bat ere ez dago itxita

1. Memoria pertsonala da. Tailer hauetan parte hatu duten guzti-guztiek beren memoria partikularra dute gertatutakoaren inguruan.

ETA, kontraterrorismoa¹, diktadura edota Gerra Zibila aipatzean, zer nabarmentzen den, zer gogoratzen den, desberdina da batetik bestera. Ezberdinak dira, halaber, gertaera horiei loturiko sentimenduak eta gertaera horietan izan duten eginkizuna. Pertsona bakoitzaren bizipenek zehazten dute, neurri handi batean, memoria hori: non bizi izan den, familia-giroa, lagunak, sasoi (adina) eta zein gertaera bizi izan zituen.

2. Hala ere, **gertatutakoa egituratzeko hainbat diskurtso eta sentimendu (emozio)** nagusi ageri dira, eta gizartea neurri handi batean bat dator horiekin. Gerra Zibilari eta diktadurari buruzkoak hegemonikoak dira, eta GALi eta ETARI dagozkionak, berriz, gehiengoarenak. Diskurtso kolektibo horiek eraikitzean, komunikabideek eta familiaren eraginak zeresan handia dute.

3. Lau esparruak elkarri lotuta daude, elkarrekin bizi dira, batak besteari egiten dio erreferentzia, eta memoria pertsonal zein sozialean txertatzen dira. Informatzaileek argi eta garbi bereizten dituzte lau esparruak. Era berean, lau esparru horiek elkarri erreferentziak egiten dizkio- te. ETA da adibide argiena: gure berriemaileek historikoki duela urte asko jazotako hainbat gertaerarekin lotu ohi dute.

4. Lau esparru horiekin loturiko zauri bat ere ez dago itxita. Ez gertaera urrunenaren zauria, Gerra Zibilarena, ezta gertaera hurbilarena ere, ETArene. Parte-hartze ia guztiak bat datoz ideia batekin: minek hortxe jarraitzen dute, konpondu gabe.

Baina informatzaileek, oro har, ilusioa ageri dute etorkizunari begira, bestelako etorkizuna izateko, etorkizun hobea izateko... Atzera begirako ikuspuntutik abiatuta eraiki beharko da etorkizuna:

«Oso importantea iruditzen zait hau ixte aldera, ze irakurketa egiten den hemen pasatu denari buruz. Nire seme-alabek zer jakingo duten edota zer esango zaien honi buruz eta nik uste dut hori ere gai inportante bat dela. Egia da kolean ez dela honetaz hitz egiten, pixkat deskontatuta dago gaia, eta onartu beharra dado jende askok ez duela ezta interesik ere gai honetan, jende askorentzat aspaldiko gauza bat da eta badauka gogoia lehenbailehen orria pasatzeko eta esateko, 'fuera, se acabó', baina nire ustez inportanteena da begirada retrospektibo bat egitea eta zer gertatu den ikustea».

¹ Kontraterrorismoa erabiliko dugu eskuin muturreko terrorismoak –BVE, GAL– eta polizia-abusuak eragindako giza eskubideen urraketa guztiak aipatzeko

1. esparrua: GERRA ZIBILA

Talde horietan parte hartu duten pertsonen memoria, neurri handi batean, adinaren arabera da. Gertatutakoaren memoria eta oraindik ere eragiten dituen emozioak, funtsean, familiak kontatu dien horretan oinarrituta daude, baina baita kontatu ez duten horretan ere –isiluneak familian. Isilune horiek, paradoxikoki, esandakoek bezainbeste garrantzi dute, edo beharbada handiagoa.

Minaren eta beldurraren isiltasuna

Isilune hori eta hitz egin nahi ez izate hori oraindik ere sendatu gabe dagoen zauriaren seinalea da. Hitz egin nahi ez duten pertsona horietako askok uste dute, hitz eginez gero, berriz ere azaleratuko lirartekeela beldurra eta mina. Hori dela eta, pertsona askok, Gerra Zibila zuzenean bizi izan zuten adineko senitartekoez, oraindik uste dute hobe dela isilik egotea edota gogoratu ere ez egitea. Gaur egun, hiru lurraldeetan nagusitzen da diktadura gaitzesteko diskurtsoa, bai hasiera –Gerra Zibila– bai berrogei urteak eta amaieragaitzestekoa, baita diktadura horren agerpen guztiak gaitzestekoa ere: kulturalak, ekonomikoak eta balioak.

Betebeharrak eta erronkak...

Iragana emozioen, pasioaren, oinazearen eta etsipenaren bidez bizi eta azaltzen da, eta lehen mailako informazio-iturri hori galtzen ari dela adierazi digute. Ez da gauza bera –eta gudan ez du interes berbera pizten– istorio bat zuzenean bizi izan zuen baten ahotik entzutea edo beste norbaitek kontatzea. Gertatutakoaren inguruko istorioak gero eta desagertuago geratzen dira denboran, eta ez hori bakarrik: edukiak gero eta indar gutxiago du, lekuko zuzenak hiltzen ari baitira.

Bereziki azpimarratu da gizarteak, hezkuntzak eta familiak **betebehar eta erronka handia** dutela:

Erronka: Gerra Zibilean gertatutakoa ahaztuta ez geratzea. Jakin dadila, gogoratu dadila, berriz ere gerta ez daitezen ez Gerra Zibila, ez hurrengo urteetako gertaerak. Beldurra, hondamendia eta galera dira gogoratu beharreko sentimenduetan: senide, lagun eta ondasunen galera; oparotasunaren, segurtasunaren, gazteriaren eta askatasunaren galera, eta, kasu askotan, miseria bera. Miseria materiala eta morala.

Betebeharra: Taldeetako parte-hartzaileek uste dute pertsona horiekiko betebehar bat dutela, benetan zer gertatu zen jakin dezaten. Eta pertsona horien historia ezagutu behar eta nahi dute, Espainiako eta/edo Euskadiko historiaren garai hartako falta zaizkien piezak jarri eta puzzlea osatzeko. Konponbiderako eskaria bizi-bizirik dago.

Etorkizuna

Eskaera nagusia JUSTIZIA egitea da. Informatzaileek adierazi dute oraindik alderdi asko daudela argitzeko; besteak beste: desagertuak, konfiskazioak, hobi komunak... Eta JUSTIZIA eskatzen dute. JUSTIZIA eta EGIA, «ez dakigun» hori guztia argitzeko. Hala ere, eszeptizismoa da Gerra Zibilearekin lotuta gehiengoak etorkizunari begira duen sentimendua. Eszeptiko agertzen dira hainbat alorrekin:

- Justiziarekin, egiarekin eta aintzatespenarekin loturiko benetako konponbidea.
- Gizabanako eta gizarte gisa egin dezakegun ikaskuntza.

2. esparrua: DIKTADURA

Gerra Zibilekoan ez bezala, tailer hauetan aukera izan dugu diktaturaren zati garrantzitsu baten mende bizi izan ziren gizon eta emakumeekin hitz egiteko. Informatzaile guztiek uste dute diktadura etapa beltz eta iluna izan zela. Gogora ekarritako esperientziak norbere memoriarekin edo senideen memoriarekin lotu ohi dira.

Norbere memorian, memoria pertsonalean: eskola eta beldurra; hitz egiteko, jarduteko eta egiteko beldurra; pobrezia morala, askatasun falta...

Eta familian jasotako **memorian**, eskasia, pobrezia morala eta ekonomikoa, muturreko konfiantza falta, baita pertsona hurbilekiko ere... Beldurra, azken batean.

Indarkeria

Indarkeria funtsezko faktorea izan da diktadura-garaiko eguneroko bizitzan. Indarkeria inplizitua eskolan, harreman sozialetan, zerbitzu militarrean edo gizarte-zerbitzuetan... Hau da, azken batean, bizitzako edozein esferatan, eta egoera zehatzetan esplizitu egiten zen kolpe, atxiloketa, zigor edota isunen bidez.

Zer ikasi

Diskurtso ia hegemonikoaren arabera, trantsizioa zorionekoa eta hobetzeko funtsezko aldaketa izan zen. Baina informatzaile askok, alde onak aitortzen badituzte ere, ikuspegi kritikoa dute diktaduratik demokraziara emandako jauzi arin horren inguruan. Bizkortasun horren ondorioz, uste dute hainbat egoera azkar eta modu desegokian konpondu zirela eta gaur egun ondorio horiek pairatzen ditugula.

3. esparrua: KONTRATERRORISMOA

(Kontraterrorismoa erabiliko dugu eskuin muturreko terrorismoak –BVE, GAL– eta polizia-abusuak eragindako giza eskubideen urraketa guztiak aipatzeko)

Kontraterrorismoa lau ardatzen inguruan mugitzen da:

1. Okultismoa, hermetismoa eta egia eta gezurraren arteko dantza.
2. Urruntasuna, edota ahanztura.
3. ETArekiko terrorismoarekiko lotura estua, haren atzealdea balitz bezala.
4. Zigorgabetasuna.

Kontraterrorismoa da **memoria kolektiboan** pisu gutxien duten minetako bat, eta **ezjakintasuna ia erabatekoa da**. Kontraterrorismoaren barruan eginiko tailerretan, GAL besterik ez da gogoratu. Beraz, kontuan hartzekoa da. Hala ere, informatzaile guztiak bat datoz ideia honetan: indarkeria ez da indarkeriaz konpontzen.

Paradoxa bada ere, memoria kolektiboan presentzia handirik ez badu ere, aho batez gaitzesten dute parte-hartzaileek mota honetako indarkeria. Parte-hartzaileek kontraterrorismoa MINarekin, INDARKERIArekin eta OINAZEarekin lotzen dute. Are gehiago, besteen gainetik, zorrotzago epaitzen dute indarkeria hau eta beronen inguruko zigorgabetasuna, «babestu beharko gintuzkeena» baita berreroa.

Kontraterrorismoari buruz hitz egitean, gainerako esparruetan agertzen ez den gai bat aipatu nahiko genuke: parte-hartzaileek ETArekiko indarkeriarekiko gaitzespina adierazteko beharra dutela

polizari edo estatuari kritika bat egin baino lehen. Tailerreko parte-hartzailearen bat ETaren indarkeria berariaz gaitzesten duen argudioarekin hasten denean, gainerako parte-hartzaileek hitz egiten hasi aurretik ETarekiko gaitzespena berresteko «beharra» edo baldintza dutela sentitzen dute, «badaezpada... gaizki-ulerturik egon ez dadin».

1. Okultismoa, hermetismo interesduna eta egiaren eta gezurraren arteko dantza

Gai horri buruz uste dute ez dela inoiz hitz egiten, normalean ez dela elkarrizketetan ateratzen, inoiz gertatu izan ez balitz bezala. Kontraterroismoarekin loturiko guztian hermetismoa ageri da, gaiari buruz hitz egiteko beldurra, ez baitago zehaztuta zer den egia eta zer gezurra, dena baitago nebulosa batean, eta lauso ikusten da. Gertaera bat ere ez da argi eta garbi jaso, eta horrek zaildu egiten du horri buruz hitz egitea. Esate baterako, torturari edo tratu txarrei buruz hitz egitea. Indarkeria-egoerak eta polizien gehiegikeriak bizi izan dituzten edota inguru hurbilean entzun dituzten pertsonak agertzen dute hunkiberatasun eta irmotasun handiena polizia-abusuekin, nahiz eta horiek lagunarteko inguruan ezkatuta eta mugatuta geratu diren, hau da, **gizabanakoan memorian**. Kalte eta min handia egiten du zenbait alderdi politikok eta komunikabidek gauzei dagokien izena jarri gabe eta definitu gabe hitz egiten jarraitzeak, indarkeria zer den eta zer ez adierazteko dituzten interesen arabera.

2. Urruntasuna, edota ahanztura

Tailerretan parte hartu duten pertsonak adierazitako beste elementuetako bat urruntasuna da; hau da, zein gutxi dakigun min honi buruz. Are gehiago, parte-hartzaile batzuek adierazi dute beharbada inkontzienteki «begiak itxi» dituztela eta «erraz ahaztu» dutela, barnean egonezinek eragin gabe; izan ere:

- ez da gaiari buruz hitz egiten.
- ez dago errudunik.
- ez dago zigorrik.
- ez da jenderik kartzelan.
- ez da, eta ez da izango, komunikabideetan agertzeko gaia.
- azken urteotan ez du eraginik izan gizartean, komunikabideetan edo iritzi publikoan.

Azpimarratzekoa da «urruntasun» horrekin ez dela indarkeria horren irakurketa ona egin behar, guztiz kontrakoa baizik. Parte-hartzaileek adierazi dute nekatuta eta lotsatuta daudela gai horren inguruan. Nazkatuta indarkeriarekin, oro har. Nagusiki ETaren indarkeriarekin, baina baita gure herrian sufritu izandako egoera guztiagatik ere. Lotsa GALekin eta ekintza horiek antolatu, ezkatuta, justifikatu eta/edo txalotu zituzten alderdi eta pertsona askoren esku-hartzeagatik.

Parte-hartzaileek oso argi dute gertaera horiek ezin direla berriz gertatu, ezta gizarte moduan eman genuen erantzuna ere. Indarkeria ezin da justifikatu, jatorria edozein izanik ere. Hori dela eta, informatzaileek bereziki azpimarratu dute gertatutakoak duen balio pedagogikoa:

- Enpatiarako gaitasunik ez duen gizartea ez izatea berrito ere, eta siglak, koloreak eta pentsamoldeak alde batera utzita, sufritzen ari diren beste pertsona batzuen minari bizkar ematen diona ere ez.
- Ez dago indarkeria zuzitzeko balio duen beste indarkeriarik.
- Sufritu duten eta sufritzen ari diren pertsona horiek familia, proiektuak, itxaropenak eta ilusioak dituzten gizon-emakumeak dira, gainerako herritarrak bezalaxe, eta justizia eta egia eskatzen ari dira eurentzat.

3. ETaren terrorismoarekiko lotura estua, haren atzealdea balitz bezala

Talde guztiak oso zorrotzak dira estatuaren indarkeriarekin: GAL, tortura erabiltzea, tratu txarrak eta atxiloketa bidegabeak. Mota horretako indarkeriak babesgabetasun-sentsazio handia eragiten du informatzaile askoren artean; izan ere, «babestu behar zaituen horrek pizten du zugar babesgabetasun-sentsazio handiena, eta sistemarekiko konfiantza falta hori gero eta handiagoa da». Onartzen dute biktima batzuk oraindik erantzunen zain daudela, eta oraindik irauten duela sufri-menduak, minak eta aintzatespen faltak.

4. Zigorgabetasuna

Zenbaitek uste edo sentitzen dute indarkeria mota hori ez dela zigortzen, eta zigorgabetasun horrek hermetismoari bide ematen dio, baita iluntasunari ere. Lasa eta Zabalaren kasuarekin (gehien gogoratzen dena) lotu ohi den Galindo jenerala zigorgabetasun horren ikur moduan agertzen da, baina X jauna, GAL oro har, eta polizia-jarduera ez-legitimoak ere badira zigortu gabe geratu den eta geratuko den indarkeriaren adibide. Gasteizen martxoaren 3an jazotako gertaerak ere adierazten dira zigorgabetasunaren eta politikaren sektore baten aintzatespen faltaren beste adibide baten moduan.

Balio pedagogikoak: EGIA ETA AINTZATESPENA

Informatzaileek adierazi digute beharrezkoa dela:

- EGIA jakitea eta hermetismoa eta obskurantismoa gainditzea.
- Publiko egitea egia «ofizialaren» kategoria duten ISTORIOAK eta kontakizunak.
- Gertatutakoa ARGITZEA oraindik argitu gabe dauden kasuetan, eta publikoki ezagutaraztea.
- ZIGORRAK jartzea bide judizialek indarkeria modu ez-legitimoan erabili duten pertsonentzat.
- AINTZATESPEN publiko egitea biktimentzat eta senideentzat.
- Gobernuek beste balio eta jardunbide batzuekin KONPROMISOA hartzea, polizia-gehiegikeriarik eta -indarkeriarik berriz gerta ez dadin.

4. esparrua: ETA

Jorratu diren lau esparruetatik ETAreka da bizien dagoena. Kasu askotan, sentiberatasun handia ageri da, eta, beraz, oso emozio handiak sortzen dira, askotan oso biziak. Informatzaileak, ia aho batez, ETAreka aurka agertzen dira, eta oso ondo dakite ETAk biktima askori eta horien familiei mina eta sufrimendua eragin diela. Beste bi minekin alderatuta, oraingo honetan hainbat testigantza zuzen ditugu.

Gure informatzaile guztiek ondo dakite ETArekin «bizi» izan direla. Gehienek garai «gogorak» eza-gutu dituzte, eta gazteenek, berriz, garai «lasaiagoak». Hori dela eta, ETAreka gaia landu den taillerretan, oso garrantzitsua izango da memoria pertsonala, hau da, memoria zuzena. Memoria horretan, pasiozko sentimenduak -besteak beste, mina, amorrua, haserrea...- kudeatu beharko ditugu lehenik.

Iritziak bloke handitan multzoka daitezke. Baina ez dugu ahaztu behar elkarrizketa hasten denean sentimenduetan gorabeherak gertatu ohi direla, horiek mugitu, aldatu eta eboluzionatu egiten baitute, hau da, ez dira egonkorak.

1. Nagusiki sakon-sakonetik amorrua, tristezia, gorrotoa eta lotsa sentimenduak adierazten dituzten pertsonak. Batez ere ETAk biktimentan eta horien familietan eragindako mina hartu dute oinarri. Gehienek.

2. Ikuspuntu zabalagotik esparru honen inguruan hausnartu duten parte-hartzaileek uste dute gizartearen kalterako izan dela. Pertsonak egon gara erdian, gizonak eta emakumeak, eta gu izan gara biktimak, neurri batean edo bestean.

3. Gutxiengoak zehaztu du zentzugabekeria horren barruan hain konplexua izan den mina ezin dugula sinplifikatu tankera honetako parametroetara: «Dena ez da zuria edo beltza». Hori dela eta, nabarmendu dute errealitatea, iragana eta etorkizuna kolorez beteriko paleta zeharkatu batez marraztea saihesteko ahalegina egin behar dugula. Euren ustez, memoria poliedrikoa da, eta, horregatik, beharrezkoa da gure herriaren historia hurbileko gertaera horiek guztiak ezagutzea eta testuinguruan jartzea, justifikatu gabe, bai eta balioa ematea ere kontakizun horiei guztiei.

Memoriaren Plaza

4. Eta laugarren talde batek nahiago du ETA desagertu izanak dakarren poza, itxaropena eta positibotasuna azpimarratu. Etorkizuna.

Memoria pertsonala, eta bizitza osoan ditugun oroitzapenak

Memoria pertsonala funtsezkoa da kasu honetan. Hainbat testigantza zuzen partekatzen dira, parte-hartzaile bakoitzeko ia-ia bat. Adierazgarria da informatzaileen zati garrantzitsu batek zuzenean kontatu ahal izatea ETArekin loturiko gertaeraren bat.

Informatzaile bat, esaterako, ondoriorik izan ez zuen bonba-auto baten lekuko izan zen Intxaurrondo auzoan. Beste informatzaile bat Azpeitian eraildako enpresariaren iloba zen; beste bat, Abusun (Bilbo) eraildako poliziaren semearen lagun bat; beste bat, Fernando Buesaren edo Jorge Díez Elorza ertzainaren hilketaren lekuko izandako baten lankidea; beste bat, Hipercor-en (Bartzelona) atentatuan senide bat galdu zuen emakume bat...

Memoria kolektiboa, izen berezia: Miguel Ángel Blanco

Memoria kolektiboan, hilketa hori da guztion erreferentzia. Gertaera hori da gehien gogoratzen dena eta gehien aipatzen dena.

Gasteizen eginiko tailerretan, arabarren memoria kolektiboan eragin handia izan zuten Fernando Buesaren eta Jorge Díez Elorza ertzainaren hilketek. Leherketa hiri osoan entzun zen, eta informatzaile askok berez eta sentimendu handiz gogoratzen dute.

Justizia erantzun gisa

Gizarte gisa ikasi dugu –edo gutxienez hala adierazten dute parte-hartzaileek– justizia geure kabuz bideratzeak iraganeko kontua izan behar duela –GALen kasuan, adibidez–. «Indarkeria inoiz ez da bidea» da diskurtso hegemonikoa.

Informatzaile guztiak ados daude indarkerian parte hartu duten edota norbait hil duten pertsonak epaitu egin behar direla eta kartzelara joan behar dutela.

Bestalde, ezadostasunak daude ETako kideei ezarri behar zaizkien zigor moten inguruan. Batzuek bizi osorako kartzela eskatzen dute –ETako atentatu baten ondorio zuzena bizi izan duten bi pertsonen–, eta beste batzuek justizia inpartziala eta berdina herritar guztientzat, edozer siglatakoa izanik ere.

Su-etena

Egiazki paradoxa bat dugu: parte-hartzaile guztiek ETaren su-etena arriskuan ez dagoela uste arren, gehienek ez dute sentitzen amaitu dela. Ez dago itxita. Gaur egun kontraesanean dauden sentimendu horiek ditugu.

Informatzaile batzuen ustez, indarkeriaren arazoa ez da konponduko:

- oraindik ETA justifikatzen duen eta ulertzen duen jendea badago,
- ETak barkamena eskatzen ez badu,
- edo 3-4 belaunaldi igaro arte.

Beste parte-hartzaile batzuek, bestalde, uste dute Espainiako Gobernuaren edo PPren esku dagoela, eta haiei leporatzen diete azken urteotan egoera honetan ikusitako immobilismoa.

Etorkizunari aurre egiteko moduak

Zauri honen bizipen pertsonal eta kolektiboen konplexutasun horrek etorkizuneko ikuspegian ere eragiten du. Guztiak ez datoz bat konponbide justua zer den interpretatzeko orduan eta amaiera horretara iristeko moduarekin. Ia pertsona batetik bestera aldatzen da.

Parte-hartzaile guztiak bat datoz ETaren amaiera nahi izatearekin, baina pertsona batetik bestera hainbat ñabardura aurki daitezke:

- Epe hori atzean uzteko adostasun handia dago. Zenbait pertsonak dagoeneko urrun ikusten dute, iraganeko kontua balitz bezala, eta lehenbailehen utzi nahi dute atzean. «Normaltasuna» lortu nahi dute, edota amesgaizto baten moduan gogoratu.

- Beste parte-hartzaile batzuek, berriz, beldurra dute, tentuz ibiltzen dira eta oso ondo identifikatuta daukate euren segurtasun-faltaren fokua: «gaizki ixtearen beldurra», «iraganaren hausnarketa kolektiboa ez egitearen beldurra», edota hainbat gauza konpondu gabe gertatzearena, bai batzuen, bai besteena, Gerra Zibilean eta frankismoan gertatu zen bezala. Informatzaile batzuek oso gogoan dute trantsizioa «txapuza» bat izan zela, eta euren iritzia da «arinago ibiltzeagatik ez dela zertan lehenago iritsi».
- Informatzaile batzuek (hiru hiriburuetan seik) uste dute momentu honetan beste aldeari dagokiola aurrerapausoak ematea, eta soilik alde bat ari dela mugimenduak egiten (ETA).
- Iritzi horren beste muturrean, bi informatzailek adierazi dute ez dagoela ezer konpontzeko, «terroristek dagozkien zigorrak osorik bete eta egindakoa ordaindu» behar dutela.

Balio pedagogikoak: ELKARRIZKETA ETA ENPATIA

Elkarrizketa

Parte-hartzaile guztiek uste dute etorkizunaren oinarrian zera dagoela: ELKARRIZKETA. Lotsa-sentimendua sortzen ari da herri gisa ez garelako gai izan ideia ezberdinetatik eta elkarrizketatik abiatuta gure arazoak konpontzeko.


Enpatia

Nabarmentzekoa da Gipuzkoako tailerrean parte-hartzaile guztiek gaitzetsi dutela (salbuespenik gabe) ETA, eta adierazi dute inoiz ez dutela euren burua erakunde horrekin ordezkatu ta ikusi. Hala, ETAREN ekintzekiko mina, amorrua eta gaitzespena agertu dute. Hala ere, kasu askotan, iritzi hori izan arren, enpatia erakusten dute euskal errefuxiatuekiko, ETAKO presoekiko, makroepaiketetan sartutako pertsonekiko, eta, batez ere, sakabanaketa-politikaren ondorioak sufritzen ari diren senideekiko. Uste dute pertsona horiek ezin gaitzetoago bihurtu nahi izateak ez duela ezertan laguntzen.

ERANSKINAK

Emozioak, oroitzapenak eta memoria komunikatzen laguntzeko eta ondoren taldean partekatzeko ezarri ziren dinamiketan, marrazkiak introspektiorako lehen ariketa gisa balio izan zuen eta, ondoren, komunikatzeko ariketa gisa.

A. Gerra Zibila eta Diktadura




«Nik itsasontzi bat marraztu dut, Ingalaterrara joan ziren ume guztiekin, oso baldintza txarretan bizi zirenez, alde egin behar izan zuten hainbatek. Nire aitak orduan 5 urte zituen, eta nik gogoratzen dut kontatu didala bazegoela jendea Juan de Garaytik gora etxeetan ezkutatzen zena, bera Indautxun bizi zen, eta erabaki zuten, Gipuzkoan ere familia zuten, baina Gipuzkoa ere erori zen, eta orduan bere aitaren jaioterrira joan ziren, Potes ondoko herri batera, Baragora. Nik alde batetik ikusten dut nire amama zalantza egiten -bi ume ziren-eta, bata 5koa eta bestea 6koa-: eraman egingo ditut?, itsasontzian sartuko ditut?, zer egingo dut?. Baldintza horietan nahi duzuna da zure seme-alabak bizirik irautea. Nire ustez, horrek oso gogorra izan behar izan du eta asko markatu behar izan ditu.»

A. Gerra Zibila eta Diktadura



«Orduan zeuden bi irudiren laburpen bat egin nahi izan dut nik, bat ezkutukoa eta bestea iragartzen zena. Batzuk kartzelan zeuden bidegabeko arrazoiengatik, ez dute kartzela zigorrik merezi; aldi berean, ordea, modernotasun itxura eman nahi zen, aurrerapen itxura. Orduan, preso bat daukan zelda bat egin nahi izan dut eta ondoan herri bat, hondartza, garapena eta hondartza, horixe baita sasoi hartaz buruan daukaguna eta orain ere ordaintzen ari garena. Laburbiltzeko, askatasun falta eta benetakoa ez zen askatasun itxura.»

A. Gerra Zibila eta Diktadura



A. Gerra Zibila eta Diktadura



«Nik sarritan gogoratzen dut ikastetxea, gogoan dut nolakoak ziren ikastetxeak: 'a formar', 'cara al sol' abesten, bandera igotzen, ikasgelan 'prietas las filas', 'yo tenía un camarada' eta horrelako kantak orain... eta bitxikeria gisa gogoratzen dut 14 bat urte izango nituela, ume bat artean, bi lagunekin nindoala eta Andra Mari Zuriaren enparantzan gris kopuru handia zegoela 'zu kale horretatik', 'zu beste horretatik' eta igandea izorratu ziguten. Paseo bat eman nahi genuen 3 ume eta bakoitza alde batetik bidali gintuzten. 3ko taldea desegin. Gogoratzen dut, baita ere, beharbada trantsizio garaian edo diktaduraren azken zatian izango zen, gazteen mugimendu politikoak sortzen ari zirenean, ni horietako batetik gertu egon nintzen, nire lagunak nahiko inplikatura zeuden, eta pegatina txiki bat orman itsasteagatik nire lagunetako batek astebete eman zuen Langraitzeko kartzelan. Horiek delitu potoloak ziren.»

B. Kontraterroismoa



«Nik fotomuntaketa bat egin dut, nik ezagutu ditut poliziak egindako atxiloketa aleatorioak eta hori gogoratu dut. Eta aleatoriki atxilotutako pertsona marraztu dut, talde bateko kidea delako edo egon behar ez zuen lekuan zegoelako, edo 18 urterekin ez zeukalako burua izan behar zuelako lekuan eta eguzkia nora, zapiak hara... eta denok esaten dugu, polizia, polizia, polizia... Poliziak egin behar duena egiten du eta egiteko esaten diotena. Zu gora zoaz, polizia, komisarioa... eta ez dakit amaitzen ote den Gobernuako presidentearengan; hari botoa eman diote eta trajea janzen du, hark ez darama porrarik, ez da ibili korrika Kutxin zure atzetik, ezta antzekorik ere. Nik uste nuen Felipe Gonzalez pertsona ona zela, baina; ni naiz "X jauna" txarteltxoaz zintzilikatzea baino ez da falta. Eta ez da ezer gertatzen. Hariaren azkenean politikoak daude, zikintzen ez direnak, korrika egiten ez dutenak, pistola hartzen ez dutenak, arriskurik ez dutenak...»

B. Kontraterrorismoa



«Ni txikitan markatuta utzi ninduen Errekalde auzoan, manifestazio bat zegoen, polizia iristen hasi zen, kargatzen/erasotzen hasi zen eta pilotak jaurtikitzen, korrika hasi ginen guztiok tabernetan ezkutatzera... ez zait inoiz ahaztuko, beldur handia pasatu nuen, ez dakizu zer den gaia, umea zara baina beldurtu egiten zaitu poliziak.»

B. Kontraterrorismoa



B. Kontraterrorismoa


- ⊗ Ver la imagen de Galindo saliendo de la cárcel.
Esa chulería que tenía, daba a entender que tenía el respaldo del poder.
- ⊗ 3 de marzo. (vídeos)
La policía carga con armas contra ciudadanos mientras celebran una reunión.

- GALINDO IMPUNIDAD.

- 3 DE MARZO.

«Hemen Gasteizen oso gogoan dugun beste gertaera bat Martxoaren 3a da. Martxoaren 3ko hiletan bideoak ikusi nituen, Prado kalean zegoen tentsioa, jendez gainezka, polizia asko ere bai, 'beharbada berriro kargatu beharko dugu haien kontra' gertatukoa nahikoa eta basakeria izan ez balitz bezala.»

C. ETA



C. ETA



«Tristura handiarekin gogoratzen dut, ETA-k su etena hautsi zuenean T4-ko atentatuarekin. Nik behintzat esperantza ikusten nuen amaiera bat etorri zitekeela, nola etorri zen goitik behera bat batean... nola apurtu zen dena. Nik uste dut aldeketarako gogoia zegoela, eta ikusi zen horrekin batzuk borondaterik ez zeukatela. Orain atera dira gauza batzuk zergatik hautsi zen su etena eta elkarrizketetan egon ziren tira-birak, nola gutxi batzuen esku dagoen horrelako gauza grabeak egitea eta azkenean...»

C. ETA

**ESCENARIO DE FONDO : SITUACIÓN
COTIDIANA V/S ASESINATO DE
BUESA QUE ME TOCÓ MÁS CERCA Y
CON MÁS EDAD.**

Cuando era adolescente en Bilbao — otros cuentan — era bastante
cotidiano encontrarte con manifestaciones, tumultos, algarabias, etc
de personas afines a ETA por las calles del casco viejo tarde o
tarde no y yo tengo muchos recuerdos de ello, pero como si
fuese una película, y estaba en un paraje y de repente
se decía "ya va a haber fillo" y todo era "normal",
"natural".
En Victoria, muchos años después, el asesinato de Brian y de la

«Fernando Buesaren hilketak izan eta bi urte beranduago, lagun bat ezagutu nuen, Ramiro de Maeztu edo beste ikastetxe horietako bateko eskolazaina zena une hartan, eta berak esan zidan bera izan zela lehena atentatu lekura iristen, bizkartzaina zen ertzaina hiltzorian zegoela eta kontatu zidan zer esan zion bizkartzainak eta nik bizitza osoan eraman dut nirekin: amari deitzen zion. Hiltzorian zegoen eta bere amari deika ari zen. Eta kontakizun horrek zirrara handia eragin zidan.»

C. ETA

1

INAXIO URIA HIL DUTE TIROZ LOIOLAN

Errokiak

#Alkateak ez du erabiltzea kondanatu

• Bake negoziaketak gure ziren herriko metro batentzen

Usteko

#Hiltzailea, sendagilea da eta MIRA-Rokoa egiten

«Inaxio Uria Loiolan tiroz hil zuten eguna datorkit niri burua ETAz hitz egin behar badut, eta nik uste dut izan zela ETaren azken erailketa, justu Loiolako bake negoziaketak gertatu ziren tokitik metro gutxira, eta beno gero herriko alkateak eduki zuen jarrera... erabat baztertu gabe, halako 'kondena' lauxo batekin, eta geroztik nik ezin dut ikusi ere egin. Nire lagun baten osaba zen Inaxio Uria, eta gero hor dagoen drama baita ere. Ustez hiltzailea sendagilea da, MIRA egitera zihoan nire lagun baten klasera zihoan, eta nik uste berak bizitza izorratu duela. Uste dut gero urte batzuk geroago Frantzian harrapatu zutela.»



Gizartearen parte-hartzea

Memoriaren Plaza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENAGARRITZA
Bakarrizta eta Eskidatzaialako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia